

KONTROL MOZIOA

HARRI BERRI-OLETAKO ESKOLAKO ESTALKIA DELA-ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2018ko urtarrilaren 15ean, Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

AZALPENA

Harri Berri-Oleta eskola publikoak 35 urte daramatza Altzan hezkuntza zerbitzua ematen.

Harri Berri-Oletako eskola komunitateak Udalari eta Eusko Jaurlaritzari Haur Hezkuntzako eraikineko jolastokiko kanpoko estalkia eraikitzearen beharra eskatu duen lehen aldia ez da. Estalkiak 143 ikasleri zerbitzua emango lieke. Estalpearen faltan, euri egunetan ikasleak zortzi orduz egon daitezke eskola barruan kanpora atera ezinik, gelen arteko txandak eginez bi eraikinen ganbaran dagoen salto gelara joan ahal izateko. Horrez gain, estalpea egiten bada, familiek ere ikasleei itxaron diezaiekete busti gabe, eta jangela garaian ikasleak eraikin batetik bestera pasatzeko ibilbidea ere erraztuko litzateke.

Esan bezala, eskaera hau aspaldikoa da, aurreko legegintzalditik hezkuntzako inbertsio aurreikuspenetan jasotzen dena. Hain zuzen ere, 2015ean Udalak eta Eusko Jaurlaritzak adosten dituzten inbertsioetarako Udalguntza diru-laguntzetan aurreikusita zegoen. Halaber, badirudi 2016az geroztik Udalak ez duela Eusko Jaurlaritzarekin estalperako inbertsiorik adostu eta aspalditik datorren eskaera etengabe atzeratzera ari dela.

Urtarrilaren 15ean, gai honen inguruan Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria interpelatu genuenean, ordezkariak ez zuen batzordean parte hartu eta erantzuna idatziz helarazi zigun. Idatzian aterpea egingo dela jasotzen da, baina ez da datarik zehazten ezta zein aurrekonturekin egingo den ere. Zehaztasun falta handia du erantzunak. Esanguratsua da, bestalde, batzorde berean, 2018ko hezkuntza inbertsioaz erregistratutako galdera bati idatziz emandako erantzunetan, Harri-Berriko estalpea egiteko aurreikuspenik ez dela jasotzen.

Ez dago, beraz, estalpea egiteko konpromiso eta aurreikuspen garbirik Udal Gobernuaren aldetik.

Hori dela-eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

1.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, lehenbailehen, Harri Berri Oletako Organo Gorenarekin bilera egin eta estalkiaren proiektua hezkuntza komunitatearekin parteka dezala.

2.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2018ko udaran Harri Berri Oletako estalkia egin dezala.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 19an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia